

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Beltza. Bye, bai Cash
Askoren artean.
Gaztelupeko Hotsak.
Iraupena: 67'40".
10 euro.

Cashen ondare ireki eta sailkaezina

JOHNNY CASH musikari amerikarra oso handia izan zen, eta esanguratsua da azken urteotan mota askotako estilota-ko musikariek harengan erakutsi duten miresmena, baita Euskal Herrian ere. Seguruenik horretan inspiratuta Bilbo-ko Pintu-k, iraganean The Clash taldearen omenez egin zuen bezala, Johnny Cashen kantuak bere erara musikatuko zituen taldeak batzeari ekin zion. 20 talde batu ditu. Horien artean Zarama (country-rock), Petti (rock-and-roll

slide), Vomito (rock urbanoa, ia heavy), Travellin Brothers (ia orkestrala), Hash (rock-blues), Morfi Grey (elektro-post-punk), Porco Bravo (punk-rock-and-roll), Rat-Zinger (punk-rock) eta Carniceros del Norte (punk) dira ezagunenak, baina badira beste asko, euskaraz, gaztelaniaz zein ingelesez grunge, noise, metal eta bestelakoak berrinterpretatzen dituztenak.

www.hotsak.com

Pintu, diskoaren koordinatzailea

«Johnny Cashen legatu osoa da ona, ez dago ezer soberan»

Lehen The Clashen omenezko lana koordinatu zenuen, eta orain Johnny Cashena. Nolatan sartzen zara halako saltsatan?

Saltseroa naizelako eta halako ekimenek bizirik egoten laguntzen didatelako.

Zer da Cashek utzi digun onena?

Bere legatu osoa, ez dago ezer soberan. Eta Cash bera jarraitzeko moduko pertsona izan zen, warrior bat!

Nola aukeratu zenituen taldeak? Zerk batzen ditu taldeok, Johnny Cashengan duten miresmenaz harago?

Proiektu honek hiru urte luze hartu ditu. Talde batzuk bidean gelditu dira, baina diskoan dauden guztiak nire lagunak dira, guztiak maite dute musika eta musikarekin iraultza egin daitekeela uste dute gainera.

Zer nolako harrera izan du orain arte diskoak?

Diskoak oso harrera ona izaten ari da, espero baino handiagoa eta berari esker jende gazte asko

“Morfiren parte hartzea lortuta lasai asko hil naiteke. Halako pertsonak ezagutu eta beraiekin lan egitea izan da garrantzitsuena”.



Johnny Cash ezagutzen ari da; hala, Cashek utzitakoa ikertzen eta ezagutzen hasi dira. Hori da nahi nuena, oso positiboa da.

Diskoak musika estilotan oso irekia da. Hala irtengo zela uste zenuen?

Johnny Cash oso irekia izan zen musikan eta beste gauza askotan; eta diskoak ere halakoa da: estilo ugari daude bere baitan.

Ez nuen espero bertan Zarama aurkitzea. Nolatan izan zen?

Berriro jotzeari ekin ziotenean aproposa ikusi nuen eta gonbidapena luzatu nien. Azkenean onartu zuten.

La Banda Traperera del Rio-ko abeslari Morfik parte hartzea oso berezia da...

Bai, lan honetako lorpen handienetakoa da. La Banda Traperera del Rioren zale amorratua naiz eta saiakera egin nuen. Morfik diskoan parte hartzea lortuta lasai asko hil naiteke. Hori da garrantzitsuena, halako pertsonak ezagutu eta beraiekin lan egiteko aukera eduki izana.

Diskoaren aurkezpenik aurreikusituz duzu?

Bai, maiatzaren 19an Vomito, Rat-Zinger eta Carniceros del Norte taldeak Leio-ako Gaztetxean batuko dira eta kontzertua DVDn jasoko dut. ■

